

ECCA, irratiz irakasten. Esperientzia bat

Carmen Rodríguez

Urrutitik irakasteak –hemen sartzen dugu irratia bidezko irakaskuntza– ez du aurrez aurre irakastearen antzik. Ohizko irakaskuntzan balio duten metodo-irizpide eta baliabideek ez dute indarririk komunikabide honen bitartez irakasten denean.

Irrati bidezko irakaskuntzaren ezaugarri bereziei ekin aurretik, beharrezko iruditu zait esperientzia hau arrakastaz hogeitaz urteren buruan maitu duen erakundearen historia azaltzea. Badira hainbat faktore beronen berezitasunaren oinarrian:

- irakaskuntzara soilik emana egotea;
- publizitaterik gabekoa izatea;
- bere metodologia propioa, hiru alderdiko sistema, hiru zutabe funtsezkotan oinarritua;
- OHOk irakaslegoa, Ministerio de Educación y Ciencia delakoak izendatua.

Hirurogeigarren hamarkadaren hasieran jaio zen ECCA irratia, Canariasetan, hango kultur egoera motzari erantzun emateko. Helduak hezitzeari ekiten zaio, irratiz alfabetatze-ikastaroak mailarik xumeenetan eskainiz (OHOn). Populazioaren %10a analfabetoa zen eta, beraz, ikastaro hauek beharrik larrienei erantzuten zieten. Epe luzera, ia mugarik gabeko itxaropena sortu zen helduen etengabeko hezkuntzaren alorrean. Ikaslearekin oso maiz, ia egunero, harremanak edukitzeak eta emisorak berak sortu zuen entzuleekiko hurbiltasun-giroari esker, erraz mugatu ahal izan ziren premiak, sortu ahala, eta ondorioz eman beharreko ikastaroak, beti entzulegoaren eskariak kontuan hartuz.

Poliki-poliki ikusi zen irratia bidezko hezkuntza zela helduei irakasteko hoberena –bai ikuspegi akademikotik, bai ez-akademikotik– merkea, eraginkorra, irispide errazekoa delako... eta Canariasetako geografia bereziak egunero akademia edo gaueskolara joatea zailtzen duelako, batez ere nekazarien barrutietan.

1964aren azken aldera hasi zen ECCA irratia lanean, inolako publizitaterik gabe. 1965eko otsailean eman zuen bere lehen klasea aurreko urtean alfabetakuntza nazionalerako kanpainak utzitako irakasle batzuekin. Irakasle horiek, kasete bidezko ikasaio esperimentaletan ari ziren ikasle-taldean laguntzari esker (soldadu, etxekoandre...), sistema osoaren oinarriak bota zituzten, lehenengo ikasaioa eman aurretik. Hurrengo

urtean, 1966ean, hasi ziren ingeleseko klaseak ikasle hasiberrientzat. Handik urte batera zabaldu ziren Penintsulan ECCA Zentruak, Madriletik hasita, probintzia guztietara. Bestalde, sistema bera Hegoameriketako hainbat lurraldetan egokitzen ere hasi ziren.

Metodologia

Irakasistema berberari jarraitzen diote ECCA ikastaro guztiek, hiru elementu batean erabiliz: material inprimatua, irrati bidezko klasea eta asteroko orientazio-saioa.

Material inprimatua

Ikusizko alderdia da, klaseari formalki era aktiboan jarraitzeko material lagungarria. Material honen zati bat, normalean *eskema* izenarekin ezagutzen dena, irakaslearen eskuetan dago, hau bere azalpenetan ari denean, eta ikasleak ere eskuan dauka etxean azalpen horiek entzuten dituen bitartean. Lanerako fitxarena eta arbelarena egiten du aldi berean. Beste material lagungarri batzuk ere badaude horrekin batera, maila bakoitzari dagozkionak: ariketak, autozuzenketarako plantila eta guzti, ikasleak bere lanak ebaluatu eta zuzen ditzan; apunte teoriko batzuk, gaiaren osagarri, eta, gainera, galdekizunak eta ariketa-orriak irakasle-gidariari aurkeztu beharrekoak eta Zentruan zuzenduko direnak. Guzti horrek osatzen du ikaslearen testuliburua.

Irrati bidezko klasea

Entzutezko alderdia, jarraitu eta ulertzeko derrigorrean material inprimatua eskatzen duena. Bere teknika propioak erabiltzen ditu arreta sortzeko, ikaskuntza aktiboari eusteko eta baliabide teknologikoak behar ez bezala erabiltzeak ekarriko lituzkeen hutsegiteak saihesteko. Ikasleak bere etxean entzuten du klasea, irakasleak hasitako prozesuari jarraitzen dio eta honek esandakoa betetzen du. Irakasaioa xeheki prestatzen da grabatu baino pixkat lehenxeago, aktiboa da eta bakoiztua, eta irakasleek ez dute aurrez idatzitako gidoirik; beren hitzaldia inprobisatu egiten dute mikrofonoaren aurrean eskemaren laguntzarekin.

Asteroko orientazio-saioa

Harreman pertsonalen alderdia, ikaslearen eta berau atxikita dagoen ECCA Zentruaren arteko lotura zuzeneko eta biziari eusten diona. Irakasle orientatzaileak zertzen du; hau da, izan ere, sistema honetako gakoetan bat, eta eginkizun anitz ditu: eskemak emango dizkio ikasleari astez aste, klaseei jarrai izan ahal diezaien; aurreko astean landutako materiala bilduko du; ikaslea pedagogiaren aldetik gidatzen du eta ebaluatzen eta, batez ere, dinamizatzaile, suspertzaile eta sustatzailer da.

Hiru elementu hauek (material inprimatua, irrati bidezko klasea eta asteroko orientazioa) oinarri-oinarrizkoak dira eta garrantzi berekoak eta, metodologia erabat eraginkorra izan dadin, hiruren arteko oreka behar da.

Beren egitekoei dagokienean:

- *elkarren osagai* dira, bakoitzak bere egitekoa du eta solidarioak dira beren artean;

- *baterantzkoak*: mezuak aurkezpen desberdina du, baina bere barnean bat bakarra da;
- *elkarren menpekoak*: denek behar dute elkarren sostengua;
- *ordezka ezinak*: ez dago bat aldatzerik beste bietakoren bat indartzeko.

Horregatik, emanaldiaren joanean garatzen den edozein ekintzak beste bi elementuen (material inprimatua eta asteroko orientazio-saioaren) laguntza behar du, eta alderantziz. Ondo erabiltzera, hortxe egongo da sistemaren efikazia, horiexei esker mamitzen da ikas/irakasprozesua.

Hiruretako edozeinek betetzen ditu beste biek utz ditzaketen hutsuneak. Ingelesaren kasuan zehazki, asteroko orientazio-aldian ahozko adierazpenari garrantzi berezia emango zaio, ezin baita material inprimatuz ebaluatu eta ez baitu berehalako feedbackik ikasaio grabatuetan.

Ikastaroak

Hezkuntzako Lege Orokorraren arauak jarraiki moldatzen da helduen hezkuntza jarraia:

- *ikastaro akademikoen bitartez*, titulu ofiziala lortzeko edo bere garaian aukerarik izan ez zuten helduei “bigarren aukera” eskaintzeko;
- *ikastaro ez-akademikoz*, titulu ofizialik lortzeko helbururik gabekoak, baizik eta norberaren hobekuntza edo arlo berezietan hobekuntza profesionala helburu dutenak.

Ikastaro akademikoak

- OHO* helduentzat: programa ofizialei jarraitzen diete.
- Herri-kultura* (1. zikloa): 17na asteko 5 maila. Urtean bitan ematen dira.
- Eskolako graduduna* (2. eta 3. zikloak): 3 maila, bakoitza 32 aste-koa. Oinarritzko kultur mailak 2. zikloko eskolakuntz ziurtagiria ematen du. E.G. 1ek eta E.G. 2k Eskolako Gradudun titulua eskuratzeko prestatzen dute.
- BUP*: programa ofizialei jarraitzen diete. Aurten, 1989an, 1., 2. eta 3. ikastaroak eman dira; 32na asteko programak dira, egunean ordu beteko emanaldia hiru asignaturatako. ECCA INBAD-en irakas-kuntz lan ofizialetan ari da Canariasetan. (INBAD: Instituto Nacional de Bachillerato a distancia.)

Ikastaro ez-akademikoak

- Ingelesa*: 32na asteko hiru ikastaro, astean ordu-erdinako hiru emanaldi gutxi gorabehera.
- Kontabilitatea eta kalkulu merkatala*: 36na asteko bi ikastaro.
- Guraso-eskola*: 20na asteko bi ikastaro. Guraso eta hezitzaileentzat Psikologia eta Pedagogia. Helduen hezkuntza iraunkorrean eta komunitateen garapenean laguntza eman nahi du.
- Balear Irletako Hizkuntza eta Kultura*: 24na asteko hiru ikastaro.
- Ikastaro monografikoak*:

- Fedean hezi (6 saio)
- Argazkigintza (24 saio)
- Kontabilitate orokorra (20 saio)
- Kontabilitate analitikoa (20 saio)
- Espainiako Konstituzioa (8 saio)
- Talde-sustatzaileak (4 saio, taldean lana nola egin)
- Eskolako errendimendua (6 saio). Eskolako porrota eta ikaskuntza hobetzeko orientabideak (ikasteko motibazioa eta interesa)

ECCA
ikastaroaren
plangintza
Aurrerakinak

Edozein ikastaro diseinatu edo planifikatu aurretik, irriti bidezko irakaskuntzako teknikariak oso kontuan eduki behar ditu bere alde dauzkan abantailak eta gainditu beharreko oztopoak. Hau ezinbesteko baldintza da. Gorabehera hauek kontuak hartzen ez badira, askoz zailago izango da ikaslearengana iristea eta gehiagok utziko diote ikasteari, eta porrot akademikoa letorke eta erakundearen irudia txartu egingo litzateke.

ECCA irriti bidezko irakaskuntzaren alderdi hauek sakon jorratuko ez baditugu ere, *abantaila* batzuk aipa ditzakegu:

- jarraitzailerik gehienak helduak dira eta motibaturik daude izena eman dutenean;
- irriti bidezko irakaskuntzak aldi berean talde handiei irakasteko eta ikasteko aukera ematen du, eta aurrez aurreko irakaskuntza baino gutxiago kostata;
- urrutiko ikasleak irakaskuntza bere erritmo, behar eta neurrietara egoki dezake, helduen beharrak era askotakoak baitira eta askotan etengabeko hezkuntza oztopotu egiten baitute.

Baditu *alderdi txarrak* ere:

- urrutiko ikasleak ez du aurrean beste gizakirik bere kezka azaltzeko –hau indar handiko bultzada izaten baita–, ez du berehalako feedbackik eta ez du “lilura” pertsonalaren susta eta motibazio-indarrik;
- gure ikasleek bakardadean ikasi behar dute;
- eguna lanean pasatzen dute;
- prestakuntza akademikoan oso maila desberdinetakoak izan ohi dira;
- gehienek ez dituzte adimen-laneko teknikak menderatzen.

Baina ondoren doazen alderdi hauek zenbat eta hobeto aprobetxatu, orduan eta eraginkorragoak irriti bidezko irakaskuntzako metodo eta teknologia:

- ikaslearen eskarmentua;
- ikasleen motibazioa;
- irakaskuntzaren egokipengarritasuna eta autonomia.

Edo sistemaren gabeziak beste faktore hauekin konpentsatzen baldin badira:

- aurkezpen argi eta erakargarria;
- hizkera malgu eta sinplea;
- ekintza fisiko eta adimenekoak eskatzea;
- prozesua norberak kontrolatzeko bideak;
- ikastekniketako entrenamendua;
- ikastaro eta ikasleei egokitutako feedback-sistema.

Hau da, irakaskuntz mota honek bere molde eta problematika bereziak dituela; hasieran esan bezala, ez dela ohizkoa bezalakoa.

Gai hauek sakonki jorratzeak denbora gehiegi eramango luke. Alabaina hemen jaso ditugun “zer”, “nork”, “zertarako” eta “zerekin” jakiteak gauzak “nola” egin galdetzera eramango gaitu, hau da, ikastaroaren plangintza eta proiektura. Proiektu honek, gaia OHOk ikastaroak izan edo hizkuntzen irakaskuntza, beti prozesu berari jarraitzen dio: berehala azalduko dugunari.

Abiapuntua Ikastaroa moldatu baino lehenago, fase honetan lau galderari erantzun behar diegu:

a. *Zer nolako ikastaroa moldatuko da?*

Akademikoa ala ez-akademikoa? Teorikoa ala praktikoa? Aurre-entrenamenduarekin edo zabala? Zein mailatakoa?

b. *Nolako ikasleentzat?*

Ikasleen beharrak. Zenbat denbora dute? Zein da ikasleen motibazioa? Nola bizi dira? Zein hizkuntz maila dute?

c. *Zertarako da ikastaroa*

Zer lortu nahi da? Zein dira helburu zehatzak? Formulaturik al daude? Ebaluatzeko modukoak al dira?

d. *Baliabideak*

Zenbatekoa izan daiteke hasierako inbertsioa? Ba al dugu finantziazio-iturririk? Ba al dago irakasle finkorik? Ba al dago erreprodukzio-gailurik: magnetofoi, diagramazio, inprimaketa, grabazio...? Nolako da egitura administratiboa? Zenbateko ikasle-multzoa informatu eta organiza daiteke? Zein baliabide informatiko, publicitario eta sustabiderako aplika daitezke?

*Materialak
aukeratzeko
irizpideak*

Asmo honek elementu eta material bakoitza egoki aukeratu eta definitzeko irizpideak landu beharra ekarriko du berekin eta, batzuetan, medio bat hobestea arrazoitu beharra: irratia edo kasetea.

*Ikastaroaren
diseinua*

Urruneko hezkuntzan urte batzuetan aritu dena ohartzen da formulazio eta azalpenen indarrez; eta, sinpleegia iruditze eta begien bistan dagoena azpimarratzen aitzeko arriskupean bada ere, hauxe esan behar: ikastaroaren proiektua idatziz azaltzea komeni dela. Azken finean, idaztea da informazioak taxutzeko modurik eraginkor eta merkeenetako bat.

Oinarri-oinarrizkoa da hau ikastaroak pentsatzekoan, lan hori ez baita zinglea, alderantziz baizik; egiteko desberdinak dituzten eta elkarrekin loturan eta elkarerraginean ari diren elementu asko daude tartean, emaitzaz batasun bat emango dutenak: ikasleak jarraitu eta bizituko duen ikastaroa eta ikaslea bera aldaraziko duena.

Hauek izan ohi dira jeneralean diseinatu beharreko elementuak:

- komunikazio edo feedbackaren kanaleak: gutunak, grabazioak, irati-emanaldiak;
- gidaritza: nolakoa, zertarako, zenbatean behin;
- lanerako metodoa: aktiboa, globala, programatua...;
- programazioa: helburuak, edukiak, ekintzak, trebatze-saioak...;
- ikaslegoaren kontrola eta ebaluazioa: moduak, maiztasuna...;
- baliabide pedagogikoak, metodologikoak, teknologikoak...;
- komunikabidearen eta ikaslegoaren arabera erabiltzeko moduko hizkera;
- laneko materialen aurkezpena eta formatoa. Inprimatuak izatera, zaindu maketazioa, letra-mota, ilustrazioak...; grabaketetan, kontuan hartu soinuaren kalitatea eta irratiko teknika eta eskuartekoz zuzen baliatzea.

Elementu guzti horiei denbora erantsi behar zaie, ikasprozesua burutzeko denbora, alegia: aldagai garrantzizkoa –gehienetan mugatua eta kanpotik baldintzatua–, beste ekintza guztietan eragina duena.

Ikastaroaren ebaluazioa

Ikastaroa martxan jarri aurretik, eraginkorra eta egokia izango dela bermatuko duten datu ahalik eta gehien lortzea komeni da. Hots, ebaluatu egin behar da: helburuak benetan beteko dituen ikusi, programa eta metodoak ondo aukeratu diren, jendartean onartua izango den eta luzarorako balioko duen. Hau edozein aldetikako hutsuneak agerian jarriko dituen ikastaro pilotoren baten bitartez egin daiteke edo, aldez bakarrik, beste bide batzuetatik.

Ikastaroa martxan jartzea

Ikastaroa, berria edo berregina, ona eta bideragarria dela ziurtatutakoan, hurrengo egitekoa martxan jartzea da.

Ikastaroari buruz esan behar ez direla beti hutsetik abiatuta moldatzen, baizik eta batzuetan lehendik landuta dagoenaz baliatzen garela, nahiz eta bukatutako produktu hori aurrez ondo gogoetatzen den eta etorkizunean eman beharko liratekeen pausuak banan-banan eta bereziki formulatzen diren. Horrela badugu erreferentzi puntu bat birplanifikazioan edota ikastaroaren diseinu berrian hastean.

Ingeleseztako ikastaro berriak

Hiru ikastaro akademiko dira, bi mailetan banatuak, eta maila bakoitza hamaseina unitatekoa (edo klase asteko). Zerotik hasi eta maila ertain bajura iristen dira.

Alor honetan ikastaroak orain dela hiru urte arte emandakoekin oso desberdin antolatu ditugu, planteamendu komunikatiboagoa emanez –Euro-

pako Kontseiluaren iradokizunei jarraiki–, baina beti ere irrati bidezko irakaskuntzak dituen berezitasunak mantenduz.

Programazioa

Programatzerakoan, honako zera hauek hartu dira kontuan:

- gramatika eta hiztegia, horiek baitira hizkuntzaren egitura osoaren oinarri eta hezurdura: laukiez baliatu, esaldiak, egituren aldaketak;
- hizkuntzaren funtzioak eta erabilera; ikasleak komunikazioaren alorrean egin dezakeen guztia: agurtu, erantzun, galdetu, identifikatu...;
- fonetikako elementuak, gradualki eta era ez-sistematikoan norberegianatuak, entzutezko bereizmena lantzeko adibideekin;
- lau gaitasun oinarritzkoen garapena: entzumena, mintzamena, idazmena, irakurmena;
- hiztegia norberegianatzea eta aldi berean ikasleari egoera normalean hitz egiten den bezala mintzatzen (komunikatzen) lagunduko dioten esamoldeak.

a. Lehenengo ikastaroa: 1. eta 2. mailak

- benetako hasiberrientzat edo sasi-hasiberrientzat;
- mailak: oinarri-aurrekoa eta oinarritzkoa;
- hizkuntz funtzio –edo hizkuntzaren erabilera– oinarritzkoak: galdetu, erantzun, identifikatu, baieztu, informazioa zuzendu...;
- oinarritzko estrukturak: aditz berezi, erregular eta irregularren orainaldia, etab.;
- hiztegi aktiboa: 500 bat hitz, ikasteko funtsezkoak;
- hiztegi pasiboa, honela osatua:
 - hizkuntzari naturaltasuna eta egiazkotasuna emateko behin bakarrik erabiltzen diren hitzak;
 - espainierako antz handia dutelako erraz ezagutzen diren hitzak: ikasleak ulertzea aski du, ez du beste egoeratan erabili beharrik;
 - hizkuntzaren erabiltzaile xume batek eskaintzen dituen esamoldeak.

Gero, hitz eta esaldi hauek guztiak testuinguru desberdinetan sartzean, ikaslearen hiztegi aktibo edo ekoizlearen zati izango dira.

- ahozko alderdiari garrantzia ematen zaio.

b. Bigarren ikastaroa: 3. eta 4. mailak

- ingelesaren oinarriak ezagutzen dituztenentzat;
- mailak: oinarritzkoa eta aurre-ertaina;
- hizkuntz funtzioak: lehenengo bi mailetakoak lantzen dira berriro eta zabaltzen: konbitei baiezkoa edo ezezkoa eman, iritziak azaldu, ekintzak iradoki, baimena eskatu;
- oinarritzko egiturak: orainaldiaren birpasa, lehenaldia eta geroaldia landu;

- hiztegi aktiboa: 750-1.000 hitz;
- gutxieneko hiztegi pasiboa: hizkuntzaren naturaltasuna bermatzen du eta hizkuntza egoera ohizkoetan erabiltzen laguntzen: kanean, lanean, oporretan...;
- idatzizko eta ahozkoaren garrantzia eta bien arteko desberdintasunak azaltzen dira;
- testu erraztuak irakurtzen hasi.

c. *Hirugarren ikastaroa: 5. eta 6. mailak*

- ingelesezko ezagutza oinarrizkoak hobetu nahi dituztenentzat;
- mailak: aurre-ertaina eta ertaina;
- hizkuntz funtzioak: aurrekoak berrir landu, eta zabaldu; baldintza, nahia, asmoa... adieraztekoak;
- egitura konplexuagoak: pluskuanperfektoa, pasiboa...;
- hiztegi aktiboa: 1.000-1.500 hitz;
- gizartean ohizko egoeratan parte hartzeko esamoldeak lantzen dira: kaleko elkarrizketak, bilerak, gutunetako esakune formalak...;
- ahozko eta idatzizko alderdiek dute garrantzia, horien erabilera argi bereiziz;
- testu erraztuak irakurtzen jarraitzen da, interpretazioa eta ulermena landuz.

Edozein mailalara iristeko, lehenengoan ezik, aurrez ahozko eta idatzizko zenbait froga pasa behar dira.

Laburbilduma edo edukiak finkatzeko orriak izan daitezke idatzizko frogak. Orientatzaileak, bestalde, badu galdera-zerrenda bat, ahozko frogaren oinarri izan daitekeena.

Maila bakoitza osatzen duten hamasei unitateak hiru modulotan bilduta daude. Modulo bakoitzak bost unitate ditu, azkenekoak ezik. Honek sei baititu. Seigarren unitate hau birpasa orokorra da eta azken ebaluazioa prestatzeko balio du.

Gai-multzoak berberak dira maila guztietan, baina egoerak ez dira berdinak, eta ziklikoki zabaldu egiten dira.

Ikasleak lantzen dituen funtzioak ere berregin egiten dira ikastaroz ikastaro eta, beti bere familiaren ingurutik hasten bada ere, egoera sozialetara iristen da, mailarik maila konplexuagoak izango direlarik.

*Materialen
osagarriak eta
eraketa*

Modulo bakoitzaren edukia:

- azala, gai orokorrari dagokion marrazkiarekin;
 - helburu espezifikoaren formulazioa;
 - edukiak: gramatika, hiztegia eta hizkuntzaren erabilera (funtzioak).
- dagozkion bost unitateak, azkenekoa beti birpasa izango delarik;
- ikasitakoaren laburbilduma, honako hau dakarrena:
 - hiztegi eta esamoldeen sinopsia, ordena alfabetikoan;

- arau gramatikalak, puntu zail eta eztabaidatuekin;
- arau horietan azaldutakoa landu eta norbereganatzeko ariketak.

Unitateko (asteko lana) elementuak:

- hiru klaseren eskema;
- etxerako lanen orria.

Eskemak irakasle-ikasleek ordu-erdiko irrati-emanalditan lantzeko prestatuta daude eta koerlatiboki zenbakituak.

Lehenengo eskemaren edukia:

- elkarrizketa (1);
- galdera pertsonalak;
- lauki gramatikala;
- klaseko ariketak, hauen artean entzutezko bereizmena lantzekoak;
- ariketa horien erantzunak eta gakoak.

Bigarren eskemak eduki berak ditu, baina beste elkarrizketa batean (2) oinarrituak.

Hirugarren eskemaren edukia:

- irakurketa;
- lauki gramatikalak;
- hiztegia eta esamoldeak;
- diktaketa;
- ariketak eta ariketa horien erantzunak.

Etxerako lana lan estra da, ikaslearena. Unitatean azaldutako guztia laburbiltzen du eta irakasle-gidariak zuzenduko du.

Irakas/ ikasprozesua

Esan den bezala, irakas/ ikasprozesua ez da irrati bidezko klasean bukatzen, ezta material inprimatua norberak erabiltzearekin ere; baizik eta erabat osatu, Orientabide-Zentruko aurrez aurreko lanarekin osatzen da.

Horregatik eta planteamendu komunikatiboagoa lortzearen eta ekintza guztiei probetxu handiagoa ateratzeko, konbinatu egiten ditugu, prozesuaren une bakoitzean eskuartean dugun medio/elementuaren arabera.

Irratiz gaiaren *aurkezpena* egiten da, berria baldin bada; edo aurrez ikusitakoarekin lotzen eta gauzarik garrantzitsu eta zailenak birpasatzen dira, lehendik ezagunak direnean. Irakasle-ikasleek *praktika kontrolatua* egiten dute material inprimatuaren laguntzaz, ahozko errepika-ariketak eta irrati-denbora gutxi eskatzen duten galdera-erantzunak eginez. Gero ikasleak berak bakarrik klasearen ondoren landuko dituen ariketa idatzia azaldu eta hasten dira. Orobat entzutezko bereizmena garatzeko ariketak eta predikzio-lan (prediction work) apur bat egiten da, ahal den guztietan. Astero, Orientabide-Zentzura joan aurretik, ikasleak ariketa idatzi “libreagoa” egiten du, etxerako lana bere kabuz egiten baitu, eta ez baitu autozuzenketarako gakorik. Zentzuan, ordea, iharduna zeharo komunikatiboa da. Klasean ahoz eta idatziz landu duen guztia, era gutxi

edo gehiago mekanikoan, orain askatasun eta sormenez ekoiz dezake, bikoteka edo taldeka lan eginez eta irakasle-gidariaren laguntzaz.

Bukaera

Zentruan bukatzen da, beraz, klasea eta hantxe ematen hurrengo klase-tarako hobekuntza izango den feedbacka. Horregatik diogu hainbeste aldiz teknologia edukatibo hau osatzen duten elementuetakoren bat falta denean –edo erdipurdika dabilenean– prozesu osoaren funtzionamenduan eragin duen hutsunea gertatzen dela.

Itzultzailea: Boni Urkizu